

TTAKUN (H)ERRENKA

Eta zuk galdetzen didazu?

**E**nel, zelako itxura ona hartzen ari den nobela. Eta zer, eta nobelako pertsonaia bati esker, Ander Blackberry-ri esker, –nobela molde berri bat asmatu ote dugu?–. Berak eman dizkigu-eta hainbat gako ezinbesteko. Batez ere, ezein nobelatan hain garrantzitsu den narratzailearenak.

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Apalauza



Padrón

Bagenituen bi pertsonaia nagusiak, Uxue hiltzailea eta Ander detektibea. Lehenengoa, honezkero ez badakizue, Madrilen bizi da. Jon Sarasuaren argazkiez forratzen zituen ikastolako koadernoak eta nahiago luke, norbait hiltzekotan, motiborik gabe erahil (ulertu egidazue ondo, inoiz ez dago motiborik inor hiltzeko, giza eskubideak dira lehenengo... eta gauza horiek). Etorriko dira gero psikoa-nalistak esatera *Ttakun* batean tratamenduan egon izana aitortzen zuela, baina benetan, ezereza da bere joera hiltzaileen iturri. Asasino nihilista moderno bat beraz, Albert Camusen ildokoa. Amy Winehouse zenaren orrazkera eramaten du eta baita kamiseta beltz bat, “I ♥ Madrid” jartzen duena zuri eta gorritz.

Detektibea, Ander Blackberry, polizia da, bai, baina ezagun du bizitzaren alde humanoa ere. Dotorea da janzkeraz, antigoaleko bizikleta beltzaz da higitzen alde batetik bestera, tarte txikiena duenean poema-liburuak irakurtzen ditu. Egiatzki, Mallarmé eta Valéry-ren hermetismoa deszifratzen zailduta lortu du kasu korapilatsuenak ere ebazteko abilezia berezia. Juan Ramón Jiménez, Pablo Neruda eta Gustavo Adolfo Bécquer aldean eramán ohi ditu halaber. “¿Y tú me lo preguntas? Asesino eres tú” gustatzen zaio esatea susmagarria atzematen duenean. Ez du Jimmy McNulty-ren arrakasta emakumeekin, baina McNulty ez bezala, kaballero bat da, edonork bere alabarentzat (edo semearentzat) nahiko lukeen

senar horietako bat. Liburu bat jaso berri du opari, Beñat Sarasolak eskainia, Roberto Bolañorena, azkenekoa, hil ostean argitaratu ziotena: *Los sinsabores del verdadero policía*.

Eta azkenik, Beñat Sarasola egile-narratzailea, autofikzionala, egungo eleberrigintzako *avant-gardeak*

exijitzen duen moduan. Nobela bikainenetan bezala (Céline, Genet...), tipo gorrotagarri bat, putaseme bat. Hurkoa zanpatzeko aukerarik galtzen ez duena, laineza, antipatikoa, hotza, tontolapikoa, idiota, Real Madrilen jarraitzailea eta azken hauteskundeetan Hamaikabat-i bozka eman diona. Hura izango da, halaber, guztion zorionerako, hildakoa (tira, ulertu egidazue ondo, ez da inoiz poztu behar inoren heriotzarengatik, giza eskubideak dira lehenengo... eta gauza horiek). Ez du lan oso konplikatu Blackberry jaunak, hasi baino lehen baitakizki zein den hildakoa zein hiltzailea, baina badakizue, nobela onenatan hori gutxienezkoa da, bidean gertatzen dena baita funtsezkoena. Esaterako, *Bihotz Bin* lehenengo esaldian ematen zaigu aditzera zein izango den amaiera, haatik, aurrera ekiten dugu atseginez. Bada, hemen ere berdin. Nobelaren izenburua jakin beharko zenukete honezkero, ez da Blackberry izan behar asmatzeko.

Nobelaren oinarritutako telesailean detektibeak Kandido Urangaren ahotsa edukiko du. Uxueri Kontxu Odriozolarena ipiniko diogu eta Sarasola baboari, Marino Lejarretarena. Hala, ia osatua dugu nobelaren bizkarrezurra. Kontua borobiltzeko zer edo zer falta zaigu oraindik, beste pertsonaia gatz eta piperdunen bat-edo. Kontakizunari bizitasun eta morbo apur bat gehituko diona. Gay edo beltz bat ondo etorriko litzaiguke. Uxue, Madril eta halako lekuetan ibilita, ezagutuko duzu halakorik ezta? ■



*Bihotz Bin* lehenengo esaldian ematen zaigu aditzera zein izango den amaiera, haatik, aurrera ekiten dugu atseginez. Bada, hemen ere berdin. Nobelaren izenburua jakin beharko zenukete honezkero, ez da Blackberry izan behar

asmatzeko

